

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2020/2021 ikasturtea

**UMOREAREN PEDAGOGIA EMAKUME MONOMARENTAL
MIGRATUEKIN ESKU-HARTZEKO**

Egilea: Olatz Urrutiaziorraga Mendiola

Zuzendaria: Amaia Eiguren Munitis

Leioan, 2021eko ekainaren 1ean

AURKIBIDEA

Eranskinak	3
I. Eranskina: umorearen funtzio pedagogikoak	3
II. Eranskina: guraso bakarreko familien arteko arrakala	4
III. Eranskina: emakumeen profila	5
IV. Eranskina: Ailara eguneko zentroaren kokalekua	6
V. Eranskina: praktika onen irizpideak	7
VI. Eranskina: ekintzen kronograma	10
VII. Eranskina: ekintzen zehaztapenak	11
VIII. Eranskina: baliabideen zehaztapenak	22
IX. Eranskina: proiektuaren gastuak	23
X. Eranskina: ebaluazioaren zehaztapenak	24
XI. Eranskina: behaketa erregistroaren txantiloia	26
XII. Eranskina: ahotsak grabatzeko baimenak	27

Eranskinak

I. Eranskina: umorearen funtzio pedagogikoak

1. Funtzio motibatzailea. Lantzen ari garen ikasgaiarekiko interesa eta gogoia piztea lortzen da.
2. Funtzio fisiologikoa. Barreak urduritasun fisikoa deskargatzen du; tentsio psikologiko orokorra arintzen du; sistema kardiobaskularra hobetzen du; eta barneko energia indartzen du (Klein, 1988).
3. Adiskidetasun- eta adiskidetasun-funtzioa. Adeitasun- eta konfiantza-giroa ahalbidetzen du; onarpen-, tolerantzia- eta errespetu-jarrerak sustatzen ditu; eta talde-kohesioari laguntzen dio. Pertsonen arteko loturak sortzen eta indartzen ditu.
4. Dimentsio-funtzioa. Pilatutako tentsioa askatzen eta kezkek duten garrantzia kentzen laguntzen du.
5. Dibertsio funtzioa. Umorearen bidez poztasuna dakartzan emozioak esperimendatzen dira (Brück eta Diaz, 1988).
6. Defentsa funtzioa. Aurkariak defendatzeko eta armagabetzeko erabiltzen da.
7. Funtzio intelektuala. Umorea erabiltzeak pentsamendu desitxuratuak eta uste irrazionalak baztertzen laguntzen du, errealitatea ikuspuntu desberdinetatik behatzeko bide berriak zabalduz.
8. Sormen-funtzioa. Pentsamendu dibergentea estimulatzen du; irudimena sustatzen du, arazoak ebazteko funtsezko elementu gisa; eta irudimena eta originaltasuna sustatzen dituzten konexio berriak aurkitzen ditu.
9. Funtzio soziala. Ikuspegi kritiko batetik, umorea gizartearen ispilu gisa funtzionatzen du.
10. Funtzio terapeutikoa. Asaldura emozionalak planteamendu psikologikoetatik tratatzeko eta konpontzeko balio du (Idigoras, 2002)
11. Funtzio pedagogikoa eta didaktikoa (Francia eta Fernández, 2009; in Damián, 2014). Umoreak arindu eta aberastu egiten ditu irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak.

II. Eranskina: guraso bakarreko familien arteko arrakala

	Familia-etxe monomarentalak	Familia-etxe monoparentalak
Ezin da urtean astebetez gutxienez oporretan joan	%63,4	%42,8
Ezin du haragi-, oilasko- edo arrain-janaririk egin, gutxienez bi egunetik behin	%7,1	%3,1
Ezin du etxebizitza tenperatura egokian mantendu	%13,4	%9,9
Ez du ezusteko gastuei aurre egiteko gaitasunik	%62,9	%39,6
Atzerapenak izan ditu etxebizitza nagusiarekin lotutako gastuen ordainketan (hipoteka edo alokairua, gasaren ordainagiriak, erkidegoa...) azken 12 hilabeteetan	%21,5	%13,6
Ezin du automobilik eduki	%16,4	%5,2
Ezin du ordenagailu pertsonalik eduki	%12	%7,7

Iturria: INE, 2015

Beraz, estatu mailan bazterketa-arriskuan dauden guraso bakarreko familia gehienak emakumez osaturik daudela ondoriozta daiteke.

III. Eranskina: emakumeen profila

Beregain errekurtsora heltzen diren emakumeak gazteak dira, adin-nagusitasunera iritsiak eta haien historia pertsonalagatik, integrazio sozial egoera zailean daudenak. Guraso bakarreko familien egoera berriari aurre egin behar diotenez, egoera hori larriagotu egiten da. Emakumeen gehiengoak, ez dute babesa ematen dien sare sozial edo familiarrik, eta horrek babesgabetasun eta ahultasun sozialeko egoeran jartzen ditu.

Kasu honetan, emakume guztiak etorkinak dira, hala ere, Itaka-Eskolapioak finkatutako irizpideak zeintzuk diren kontuan harturik, hartzaileak ondorengoak betetzen dituztenak izango dira (Itaka-Eskolapioak Fundazioa, 2018):

- 18-30 urte bitarteko emakumea izatea, kasu zehatzetan malgutasuna edukiz.
- Adingabeak haien ardurapean izatea edo haurdunaldian egotea.
- Babes-neurria (zaintza edo tutoretza) izatea edo izan izana, edo gizarte-zerbitzuekin harremana izatea.
- Familia edo egoera pertsonal larriaren egotea.
- Programaren helburuez onura atera ahal izatea.
- Modu independentean bizitzea galarazten dion urritasun fisikorik, psikikorik edo nahasmendu mentalik ez izatea.
- Bizkaian bizitzea.

IV. Eranskina: Ailara eguneko zentroaren kokalekua



Iturria: Google Maps (d.g.).

V. Eranskina: praktika onen irizpideak

Arazo sozialei zenbait konponbide ematen dizkion kontzeptu hau bere osotasunean barneratzeko, garrantzitsua da errealitatea ezagutzea. Horretarako, Díazek, Paresek eta Pomeroyk (2007) praktika ona edo egokia izan dadin, eduki beharreko hamar irizpide proposatzen ditu. Nolanahi ere, informazioa guztiz osatzeko, Gurutze Gorriak sortutako *Buenas prácticas y capacitación la inclusión social* (2003) dokumentua baliagarria da informazioa guztiz osatzeko, baita praktika onen identifikazio egokia lortzeko ere. Hona hemen aipatutako hamar irizpideak:

1. Berrikuntza

Sistema baten barne funtzionamendua eta inguruarekin duen erlazioa hobetzearen asmoarekin, bere elementuen aldaketa edo barneraketa lortu nahi da. Beti ere, jarduera hauen emaitzak talka positiboa edukitzea helburu dutela kontuan izanik.

2. Transferigarritasuna

Bizipen batek duen errepikatzeko kapazitateari deitzen zaio, beste era batera esanda, bere jatorriko espazioan sortu ez den beste testuinguru batean arrakasta izateko probabilitate altuak izateari esaten zaio.

3. Bideragarritasuna

Praktika onak efizientziaz burutu daitezten, fundamentuz bideratu behar dira. Horretarako, honen diseinuak, testuinguru ekonomikoa, teknikoa, antolatzailea eta sozio-politikoa kontuan hartu behar ditu.

4. Talka positiboa

Eragin positiboa, ezarritako helburuen ondorio gisa ulertzen da. Izan ere, ekintza oro hobekuntzaren bat lortzeko sortua da, eta kasu honetan, praktika on batek pertsonen bizi kalitatearen edo bizi baldintzen hobekuntza ekarri behar du.

5. Plangintza

Edozein prozesuk, plangintza baten beharra du arrakasta izan dezan, eta aldi berean, inolako antolakuntzarik gabe, ideia guztien nahasketa okerra

ematen da. Argi dago, bada, plangintza baten bitartez, ideia horien arteko erlazioa eta ordena lortzen dela. Ez hori bakarrik, prozesuaren etapa guztietan plangintza sistematikoa aurreikusten duten eta herritarren esku-hartzearen edo laguntzaren bitartez plangintza hori burutzen duten praktikek, goraipamen altuak izan ohi dituzte.

6. Lidergo irmoa

Praktika on bat burutzeko, hau sortzen duten buruen kohesioa, parte-hartzea eta motibazioa garrantzizkoa da, beti ere, helburuen garapenean eta lortzeko bidean iniziatiba erakutsiz.

7. Erantzukizun zehaztuak

Jakin badakigu, taldekideen arteko koordinazioak eta kohesioak praktiken nondik norakoak zehaztuko dituztela. Beraz, parte-hartzaileek prozesuaren logika eta mugak zeintzuk diren jakin behar dute. Zer, nola eta nortzuk galderak erantzuteaz gain, prozesu parte-hartzaile honen bidez, espero diren emaitzen inguruan, parte-hartzaileak jakinaren gainean jarri behar dituzte.

8. Ebaluazio sistema

Ezarrirako helburuak zer neurritan bete diren ala ez ikusiko da, eta aldi berean, dauden akatsak edota desbideratzeak kontuan hartuz, prozesua hobe daiteke.


9. Herritarren parte-hartzea

Era kolektibo edota indibidual batean esku-hartzeak, komunitatearen ongizatea sustatuko du, eta modu honetan, pertsona guztiengana heltzeko aukera izango du.


10. Berdinen arteko onarpena


Praktika on baten gakoa, pertsonen eta taldekideen arteko errespetuan eta ekitatean dago, bizipen guztiak onartuz eta horren bitartez aberastuz.


VI. Eranskina: ekintzen kronograma



VII. Eranskina: ekintzen zehaztapenak

Ekintza: Mezulariaren fabula				
<u>Data</u> Apirilak 9	<u>Espazioa</u> Ailarako eguneko zentroa	<u>Denbora</u> 1h 30min	<u>Materiala</u> Boligrafoak, orriak eta kolore gorriko eta urdineko gutun-azalak	<u>Pertsonak</u> 4
<u>Helburua:</u> frustrazioarekiko tolerantzia lantzea, emakumeek sentitzen dituzten emozioak kudeatzera bidean hurbilpen bat emateko.				
<u>Dinamika:</u> ona da emozio atseginak eta desatseginak bizitzea, beldurra eta lotsa sentitzea alaitasuna sentitzea bezain garrantzitsua baita. Frustrazioari aurre egiteko, emozio desatseginak bizi behar dira eta hauei aurre egiten ikasi. Horretarako, mezulariaren fabula erabiliko da oinarritzko ideia gisa. Emozio atseginak eta desatseginak jarriko dira paper zatietan, eta hauek kolorezko gutun azaletan sartuko dira: bata urdinean (emozio atseginen) eta bestea gorrian (emozio desatseginen). Mezulari papera hartuko duen emakume batek bi pakete emango dizkio hartzailearen papera egingo duenari, eta umorearen eta antzerkiaren bitartez, emozio horiei aurre egingo diete.				
<u>Ebaluazioa:</u> behaketa parte-hartzailearen bidez eta barremetroa.				
<u>Argazkiak</u>				
				






Ekintza: Beldurrarekin dantza				
<u>Data</u> Apirilak 9	<u>Espazioa</u> Ailarako eguneko zentroa	<u>Denbora</u> 1h 30min	<u>Materiala</u> Paperezko gorputzak, margoak eta ordenagailua (musikarako)	<u>Pertsonak</u> 3
<u>Helburua:</u> egunerokotasunari begira kontrol pertsonala sendotzea, emakumeek				


sentitzen dituzten emozioak kudeatzera bidean hurbilpen bat emateko.

Dinamika: dinamika honetarako beldurrak eragiten dizkien seinale fisikoak ezagutu behar dituzte. Beldurra eragiten dien horretan pentsatuz; emozio hori berpizten saiatuko dira, haien gorputzari begiratzuz eta sentazio fisikoei erreparatuz. Horretarako, begiak itxita edukiz eta beldur horretan pentsatuz sentazioaren bat sentitzen duten gorputzeko atalean zentratuko dira; eta behin zein den identifikatuta, paperezko gorputzean marraztuko dute. Bukatzeko, beldurrarekin dantzatzuko dute, beldurrak eragiten dituen alderdi fisikoak ukitzen diren bitartean.

Ebaluazioa: behaketa parte-hartzailea eta barremetroa.

Argazkiak







Ekintza: ABC dinamika				
<u>Data</u> Apirilak 15	<u>Espazioa</u> Ailarako eguneko zentroa	<u>Denbora</u> 1h 30min	<u>Materiala</u> Orriak eta boligrafoak	<u>Pertsonak</u> 5
<u>Helburua:</u> pentsamendu irrazionalen bazterketarekin, autokontzeptuaren sendotzea eskuratzea, bizitza ikusteko ikuspegiari dagokionez aurrerapenak lortzeko.				


Dinamika: norberaren autokontzeptuan eragina duen pentsamenduan zentratuko dira, eta behin argi dutenean, egoera hori zein unetan gertatzen den pentsatuko dute; eta, aldi berean, horrek eragiten dizkien emozioetan. Idatzi dutena gutun-azal batean sartuko dute. Dinamikarekin hasi baino lehen, batek egoera hori eszenifikatuko du eta beste batek ahotsa jarriko dio. Behin hori eginda, pentsamendua egiazkoa izatearen aldeko probak eta aurkako probak aterako dituzte, eta honekin bukatzerakoan, gerta daitekeen okerrean zein denaren inguruan hitz egingo da.

Ebaluazioa: behaketa parte-hartzailea eta barremetroa.

Argazkiak



Ekintza: Bonoaren txapela				
<u>Data</u> Apirilak 15	<u>Espazioa</u> Ailarako eguneko zentroa	<u>Denbora</u> 1h 30min	<u>Materiala</u> Kolorezko zapiak bakoitzaren papera zein den jakiteko	<u>Pertsonak</u> 5
<u>Helburua:</u> haien artean hurbiltasuna ematea, haien artean sortu daitezkeen gaztazketaz deskonektatzeko gunea edo espazio segurua sortzeko.				
<u>Dinamika:</u> istorio bat kontatuko da eta bakoitzak funtsezko papera izango du bere baitan. Guztien artean erabaki bateratu batera iritsi beharko dira, bakoitzaren zeregina kontuan hartuta.				
<u>Ebaluazioa:</u> behaketa parte-hartzailea eta barremetroa.				
<u>Argazkiak</u>				
				




Ekintza: Pamela Palencianoren hitzaldia			
<u>Data</u> Apirilak 29	<u>Espazioa</u> Ailarako eguneko zentroa	<u>Denbora</u> 1h 30min	<u>Pertsonak</u> 5
<u>Helburua:</u> epaitua ez sentitzearen sentimendua izatea, bizitza ikusteko ikuspegiari dagokionez aurrerapenak lortzeko.			
<u>Dinamika:</u> genero indarkeria pairatu duen emakume batekin hitzaldi			

telematikoa antolatuko da. Honek, bere istorioa bakarrizketaren bidez kontatzen du eta emakumeentzat aberasgarria izan daiteke.

Ebaluazioa: behaketa parte-hartzailea eta word kafea.

Argazkiak



Ekintza: Barre algarak

<u>Data</u>	<u>Espazioa</u>	<u>Denbora</u>	<u>Pertsonak</u>
Martxoak 4	Ailarako eguneko zentroa	1h 30min	5

Helburua: tentsioa apurtzea eta desinhibitzea, haien artean sortu daitezkeen gatzaketaz deskonektatzeko gunea edo espazio segurua sortzeko.

Dinamika: espaziotik mugitzen hasiko dira, eta dinamizatzaileetako bat, bat-batean, barrezka hasiko da. Barre algaraka dagoen bitartean, gorputzak eskatzen diona egingo du, adibidez, besoa mugitu, salto egin, etab.

Ebaluazioa: behaketa parte-hartzailea.

Ekintza: Antzerkia

<u>Data</u>	<u>Espazioa</u>	<u>Denbora</u>	<u>Pertsonak</u>
-------------	-----------------	----------------	------------------

Apirilak 15	Ailarako eguneko zentroa	1h 30min	5
<p><u>Helburua:</u> tentsioa apurtzea eta desinhibitzea, haien artean sortu daitezkeen gaztazketaz deskonektatzeko gunea edo espazio segurua sortzeko.</p>			
<p><u>Dinamika:</u> dinamizatzaileek egoera bat sortzen hasiko dira, hitz egin gabe, eta egoera zein den ikusi ondoren, nahi duten moduan horren parte izan beharko dira. Modu honetan, agertoki bat sortuko dugu, non bakoitza nahi duena izan ahalko den.</p>			
<p><u>Ebaluazioa:</u> behaketa parte-hartzailea eta barremetroa.</p>			

Emakumeei lehenengo egunean emandako tripitikoa





4 DE MARZO

17.00-> Brainstorming
18.00-> Risa contagiosa

9 DE ABRIL

10.00-> La fabula del mensajero
11.00-> Bailar con el miedo

¡RECORDAD!

1. NO REIROS DE LAS DEMAS
2. NO FALTEIS EL RESPETO
3. HACED LO QUE EL CUERPO OS PIDA
4. NADIE ESTA OBLIGADA A PARTICIPAR

15 DE ABRIL

17.00-> Teatrillo
17.15-> Dinámica ABC
17.40-> Gorros de bono

29 DE ABRIL

17.15-> Charla de Pamela Palenciano
18.00->Word Cafe

VIII. Eranskina: baliabideen zehaztapenak

Giza baliabideak

Kontrataturako langileak

- Bi gizarte hezitzaile.
- Bete beharreko funtzioak argiak dira: proiektua aurrera eraman ahal izateko egin beharrekoak egitea, adibidez, helburuak proposaturako ekintzekin bete ez badira beste jarduera batzuk proposatzea, hau da, plangintza birmoldatzea. Emakumeen ongizatea bermatzea funtziorik garrantzitsuenetarikoa da.
- Astean bi orduko lanorduak izango lirateke, materiala prestatzeko eta tailerra egiteko. Hilabetean guztira, lau orduko lanorduak.
- Ordainsaria boletinaren araberakoa da, kasu honetan, 12.16 eurokoa orduko, hau da, hilabetean 48,64 eurokoa pertsonako.

Boluntarioak

- Tailer orduetan emakumeen haurrak zaintzeko bost boluntarioen beharra izango da.
- Hauen ardura nagusia haurrak izango dira, eta hauen ongizatea. Eguraldi txarra eginez gero, eguneko zentroko jolasgunean egon daitezke, eta ona egitekotan, parkean. Merienda eman behar izatekotan, amek haur bakoitzaren kotxean utzi ohi dute.

Baliabide materialak


- Eguneko zentroko gela
- Aulkiak
- Mahaiak
- Ordenagailua
- Tailerretan erabilitako materiala: kartulinak, orriak, boligrafoak, zela...

IX. Eranskina: proiektuaren gastuak

PROIEKTUAREN GASTUAK	
1. Proiektuaren gastuak	
1. 1. Zuzeneko gastuak	EUROAK
Giza baliabideak	
Nominak	194,56 €
Gizarte Hezitzaileak	2
Lanaldia	Lau taller = bi orduko iraupena bakoitzak 8 ordu
Ordainsaria	12,16 € /ordua
Baliabide materialak	
Materiala (margoak, zapiak, kartulinak...)	10 €
Teknologia eta azpiegiturak	0 €
Alokairua	0 €
Moneta baliabideak	0 €
Proiektuaren zuzeneko gastuak, guztira	202,56 €
1. 2. Zeharkako gastuak	20,256 €
1. 3. Aurreikusi gabeko gastuak eta bestelakoak	10,128 €
PROIEKTUAREN GASTUAK GUZTIRA	232,944 €

X. Eranskina: ebaluazioaren zehaztapenak





XI. Eranskina: behaketa erregistroaren txantiloia

Data	Ordua	Behaketaren iraupena	Behatutako pertsonak
Behatutako testuingurua			
Gertakaria			
Oharrak			

XII. Eranskina: ahotsak grabatzeko baimenak

En Bilbao, 29 de abril del 2021

Estimado participante:

En el marco de los talleres impartidos en el centro de día Ailara, se están realizando talleres de humor para mujeres monomarentales.

Para ello, solicitamos su colaboración para poder analizar la evaluación final de dichos talleres.

En cualquier caso, la participación es voluntaria y la negativa a hacerlo no conllevará ningún tipo de perjuicio.

Todos los datos que facilites para esta investigación son confidenciales. Has de saber que la participación en esta intervención es voluntaria y que puedes revocar el consentimiento dado en cualquier momento, sin tener que dar ninguna explicación. Los datos personales serán tratados conforme al Reglamento Europeo 2016/679 de protección de datos.

A esta información no podrá acceder ninguna persona externa al proyecto, salvo en cumplimiento de una obligación legal.

Doy mi consentimiento para grabar la conversación.

Si	No
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Fdo. participante

.....
.....
Mediante este documento doy el consentimiento para la participación en la evaluación